



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2008KO ABUZTUAREN 19AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna

Angel Luis Uribarri Gondra jauna

Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea

Beñat Erezuma Arisketa

Jasone Bernaola Aurrekoetxea

Roman Etxeandia Zabala

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2008ko abuztuaren 19an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2008ko uztailaren 23an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Uztailaren 18ko 2008/67 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.en urbanizazio proiektuaren onarpenari Maier S.Coop. enpresak jarritako errekurtsoren onarpena eta J.T.B.I. jaunak jarritako berraztertze errekurtsua ezeztatzea.
- **Uztailaren 22ko 2008/68 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.B.B. jaunari, Iturri Bekoa etxean fatxada margoztu eta 15 m2ko horma bat altzatzeko baimena.
- **Uztailaren 24ko 2008/69 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko uztailaren 28an Busturialdeko Ur Partzuergoak ospatuko duen batzarrerako Javier Berrojalbiz Bidaguren jauna Angel Luis Uribarri jaunaren ordezkari modura izendatzea.



Ajangizko Udala

- **Uztailaren 24ko 2008/70 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxez-etxeke zerbitzua betetzeko Udal lanetarako R.C.S.A. andrea izendatzea, uztailaren 24tik abuztuaren 24ra bitartean, astean hamabi orduko lanaldian.
- **Abuztuaren 5eko 2008/71 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.L.U.G. jaunari, Ajangizko landalur katastroko 3. Poligonoko 333 lurzatian dagoen txabolako erretila konpontzeko baimena.
- **Abuztuaren 5eko 2008/72 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop. enpresari parking-a asfaltatzeko lanetarako baimena, Maier S.Coop. industri lurrerako onartutako Urbanizazio Proiektua eta Xehetasun Azterlanarekin bat etorrita.

3.- ENTZUTEGI NAZIONALEKO 5. INSTRUKZIO EPAITEGIKO 2008KO OTSAILAREN 8KO AUTOAREN BERRI EMATE ETA ONDORIOAK.-

2008ko apirilaren 15ean, 223 erregistro sarrera zenbakia, Udalari Entzutegi nazionaleko bosgarren Instrukzio Epaitegi Zentralaren Autoa jakinerazi zitzaion, bera betetzeko aginduz.

Auto horrek bederatzigarren atalean zera ebasten du:

"Decretar la suspensión de la capacidad y derecho a presentación de candidaturas y concurrencia a cualquier proceso electoral, incluido el de las próximas elecciones generales a celebrar el día 9 de marzo de 2008, por un periodo de TRES años a ACCION NACIONALISTA VASCA/EUSKO ABERTZALE EKINTZA prorrogable por otros dos, hasta el máximo de cinco, previa audiencia a los interesados".

Adierazitakoa kontutan hartuta, eta Udalean izandako eskaera aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak aho batez ebazten du:

Ajangizko ANV taldea desegitea.

4.- HERRIKO TABERNAREN ALOKAIRUA ESLEITZEKO PROZEDURAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Herriko Tabernaren alokairu kontratua bukatzeko dagoela eta, esleipen berrirako prozedura martxan jarri beharra dago.

Alokairua urriaren 14an bukatzen dela kontutan hartuta, Alkatezak esleipenerako plegua onartzea proposatzen du, interesdunei irailaren 19rarte aurkezteko epea emanez.

Adierazitakoa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:



Ajangizko Udala

Lehenengo.- Herriko Tabernaren alokairurako prozedura martxan jarri eta alokairua leihaketa bidez esleitzeko baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak jasotzen dituen agiria onartzea.

Bigarren.- Agiria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

5.- AJANGIZKO TOPONIMIA BILTZEKO BEKAREN ESLEIPENA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2008ko maiatzaren 30ean, Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen, besteak beste 2008 urte honetarako "Ajangizko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzea" ekintza adostuz.

Lan hau burutzeko beka deialdia egin zen, dokumentazio aurkezteko uztailearen 4-a arteko epea zabalduz. Epe honetan ez da eskatutako baldintzak betetzen zuen eskaintzarik jaso, eta hasiera batean beka bertan behera uzteko arriskutan egon zen.

Lana aurrera eraman ahal izateko aukerak aztertuz, Jon Kortazar Billelabeitia jaunak lana burutzeko bere konpromesua aurkeztu zuen, Udaletxean kurrikuluma aurkeztuz.

Kortazar jaunak lana burutu ahal izateko baldintzak betetzen dituela kontutan hartuta, Alkatetzak oneritzia eman zion, abuztuan lanari ekiteko agindua emanaz.

Hau guztia kontutan hartuta eta Alkatetzak egindako proposamena aintzat hartuta, Udal Osoko bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez, adosten du:

Lehenengo.- "Ajangizko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzea" lana burutzeko beka Jon Kortazar Billelabeitia jaunari esleitzea.

Bigarren.- Erabaki honen berri Eusko Ikaskuntzari eta interesdunari berari ematea jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

6.- AJANGIZKO MENDIETA AUZOKO BI-3224 ERREPIDE FORALEAN ROTONDA BAT ERAIKI ETA TRAFIKOA MOTELTZEKO NEURRIAK HARTZEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Mendieta auzoko BI-3224 errepide foralean rotonda bat eraiki eta trafikoa moteltzeko neurriak hartzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Saila, Bizkailur eta Ajangizko Udalaren artean sinatu beharreko hitzarmena aurkezten du Alkate jaunak.

Hitzarmenaren ondorioz, Ajangizko Udalak obrak egiteko behar den lurra jarri eta ukituriko zerbitzuak berriro ezartzeko konpromesua hartzen du. Horrez gain, hitzarmena sinatzearekin, Ajangizko Udalak BI-3224, 34+850 p.k.tik (aparkalekua) 35+440 (Leixarteko sarbidea) puntu kilometrikora bitarteko tartearen titulartasun aldaketa ere burutuko litzateke.



Ajangizko Udala

Bizkailur izango litzateke lanak esleitu, zuzendu eta burutzeko arduraduna, eta Herri Lan sailak lanetarako beharrezko den lur forala jarri eta 350.000 euroko ekarpena egingo luke.

Adierazitakoa kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez adosten dute:

Lehenego.- Ajangizko Mendieta auzoko BI-3224 errepide foralean rotonda bat eraiki eta trafikoa moteltzeko neurriak hartzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailarekin eta Bizkailurrekin sinatu beharrezko hitzarmena onartzea (hitzarmena eranskin modura gehitzen zaio agiri honi).

Bigarren.- Alkate Udalburua hitzarmena sinatu eta berau formalizatzeko beharrezko tramite guztiak burutzeko ahalmentzea.

7.- MENTZETA AUZORA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (II. FASEA) ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2008ko uztailaren 23an, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen (II. Fasea) proiektua, administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria onartu zuen, esleipen prozedurari hasiera emonaz.

Sektore Publikoetako legeak araututakoarekin bat, prozeduran parte hartzeko lau enpresei egin zitzaaien gonbidapena:

- Asfaltados y Construcciones Morga
- Construcciones Intxausti S.A.
- Excavaciones Satur Gomez S.R.L.
- Excavaciones Gaimaz S.A.

Egindako gonbidapenari hiru enpresak erantzun zioten: Asfaltados y Construcciones Morga, Construcciones Intxausti S.A. eta Excavaciones Gaimaz S.A.

Aurkeztutako proposamenak aztertuta eta Alkateak egindako proposamena aintzat hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanak (II. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea, guztira 117.120,00 euroko kostuarekin eta berrogeitabederatzi eguneko epea betez, Baldintza Partikularrak arautzen dituen Pleguak jarritako gainerantzeko baldintza guztien arabera, beti ere, kontratistak eskeinitako gainerantzeko zehazketak kontutan hartuta.

2.- Esleituak baldintza agiriko 18. Atalean azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu Udaletxean.

3.- Baldintza Agiriko 19. Atalean jasotzen diren betebeharrak kontutan hartuta hamabost laneguneko epean, esleituak honako ekintzak burutu beharko ditu:



Ajangizko Udala

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu.
 - b) Behin betiko bermea jarri.
-
- a) Administrazio honen bulegotara etorri proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa akta izenpetzeko.
 - b) Azkenik, administrazio honen bulegotara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

4.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

8.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (I. FASEA) ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2008ko uztailaren 23an, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen (I. Fasea) proiektua, administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria onartu zuen, esleipen prozedurari hasiera emonaz.

Sektore Publikoetako legeak araututakoarekin bat, prozeduran parte hartzeko lau enpresei egin zitzaaien gonbidapena:

- Asfaltados y Construcciones Morga
- Construcciones Intxausti S.A.
- Excavaciones Satur Gomez S.R.L.
- Excavaciones Gaimaz S.A.

Egindako gonbidapenari bi enpresak erantzun zioten: Asfaltados y Construcciones Morga eta Construcciones Intxausti S.A.

Aurkeztutako proposamenak aztertuta eta Alkatezjak egindako proposamena aintzatu hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea, guztira 163.203,16 euroko kostuarekin eta berrogeitazortzi eguneko epea betez, Baldintza Partikularrak arautzen dituen Pleguak jarritako gainerantzeko baldintza guztien arabera, beti ere, kontratistak eskeinitako gainerantzeko zehazketak kontutan hartuta.

2.- Esleituak baldintza agiriko 18. Atalean azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu Udaletxean.



Ajangizko Udala

3.- Baldintza Agiriko 19. Atalean jasotzen diren betebeharrak kontutan hartuta hamabost laneguneko epean, esleituak honako ekintzak burutu beharko ditu:

- c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu.
- d) Behin betiko bermea jarri.

- c) Administrazio honen bulegotara etorri proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta zuinketa akta izenpetzeko.
- d) Azkenik, administrazio honen bulegotara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

4.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

9.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Ez daude.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA